

EBAZPENA, 2025ko abenduaren 12koa, Zientzia eta Berrikuntza sailburuordearena, 2025-2026 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuaren 2025eko uztailaren 22ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituen (Ikerketa Espezifikoa).

Laguntza berrien eskaeren ebaluazioa eta Zientzia Politikako zuzendariak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.– I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntza berriak ematea, 2025-2026 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharrezko zenbatekoa adieraziz.

Kontratuak 12 hilabeterako izango dira.

Bigarrena.– II. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Hirugarrena.– III. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratu izanaren arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.– Dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2025eko uztailaren 22ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza sailburuari gorako errekurtoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2025ko abenduaren 12an.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Zientzia eta Berrikuntza sailburuordea